



IGERIKETA

2019ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Igeriketa Federazioekin lankidetzan, 2019ko maiatzaren 25ean Santurtziko Mikel Trueba Udal instalakuntzen igerilekuan. Hauxe duzue jokoaren araudia:

1- PARTAIDETZA

Mutiletan 2005. eta 2006.urtean jaiotakoak hartuko dute parte eta nesketan 2006 eta 2007an jaiotakoak.

Kirolariek lurralde historiko bakoitzean osatutako taldeetan hartuko dute parte. Denboraldirako eskola kiroleko lizentzia indarrean duten igerilariak bakarrik izan daitezke partaide.

Selekzio bakoitzak errelebo-talde bakarra aurkeztu dezake.

Lurralde historiko bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ahal izango ditu banakako saio bakoitzean, beti ere bi honenen partaidetza ziurtatuta izango delarik, selekzio zein banakako frogetan. Hauetaz gain, izena emate garaian denbora hobeak dituzten igerilariek parte hartuko dute froga bakoitzeko 12 igerilari osatu arte (bi serie), 100mtrko lasterketetan 3 izango dira bete beharreko serieak.

2018ko urriaren 1a eta 2019ko maiatzaren 19a bitartean egindako parte-hartze markak baliozkotzat hartuko dira.

Igerilari bakoitzak banakako bi saiotan parte hartuko du -jardunaldi bakoitzean proba bat- eta baita erreleboetan ere.

Euskadiko Igeriketa Federazioak serieen behin-behineko zerrenda argitaratuko du maiatzak 21 asteartea, bere web orrian (www.eif-fvn.org). Akatsen bat antzemanez gero, maiatzak 22 asteazkena, 12:00ak baino lehen adierazi beharko zaio aipatutako Federazioari. **Web orrian argitaratutako zerrenda ez da eraldatuko, erreklamaziorik onartu edo onartuko ez den kontuan hartu gabe.**

2- PROBEN EGITARUA

1. jardunaldia (19/05/25 10:00etan)				2. jardunaldia (19/05/25 16:30etan)			
1.-	1500	Librea	Mutilak	15.	800	Librea	Neskak
2.-	400	Librea	Neskak	16.	400	Librea	Mutilak
3.-	100	Tximeleta	Mutilak	17.	50	Bizkarr.ige. IPC	Neskak
4.-	100	Tximeleta	Neskak	18.	50	Bizkarr.ige. IPC	Mutilak
5.-	200	Bizkarrekoa	Mutilak	19.	100	Estiloak	Neskak
6.-	200	Bizkarrekoa	Neskak	20.	100	Estiloak	Mutilak
7.-	100	Bularrekoa	Mutilak	21.	200	Tximeleta	Neskak
8.-	100	Bularrekoa	Neskak	22.	200	Tximeleta	Mutilak
9.-	200	Librea	Mutilak	23.	100	Bizkarrekoa	Neskak
10.-	200	Librea	Neskak	24.	100	Bizkarrekoa	Mutilak
11.-	200	Estiloak	Mutilak	25.	200	Bularrekoa	Neskak
12.-	200	Estiloak	Neskak	26.	200	Bularrekoa	Mutilak
13.-	4 x 100	Librea	Mutilak	27.	100	Librea	Neskak
14.-	4 x 100	Librea	Neskak	28.	100	Librea	Mutilak
				29.	400	Estiloak	Neskak
				30.	400	Estiloak	Mutilak
				31.	50	Librea ige. IPC	Mutilak
				32.	50	Librea ige. IPC	Neskak
				33.	4 x 100	Estiloak	Neskak
				34.	4 x 100	Estiloak	Mutilak
				35.	25	Librea ige. IPC	Mixtoa

3- IZEN EMATEA

Lurraldeetako Federazioek bakoitzaren selekzioko partaideen izen-emateak LEVERADE sistemaren bidez egingo dute, beranduenez **2019ko maiatzaren 21ean 13:00etarako.**

Federazioek izen-zerrenda indibidualetan sartu beharko dituzte errelebo-probetan bakarrik parte hartuko duten igerilariak.

4- LEHIAKETA FORMULA

Serieak marken arabera osatuko dira.

Erlojuaren aurkako sistema erabiliko da, IPC igeriketa libreko frogan ezik, honetan eskuz egingo da.

5- BAJAK

Bajak idatziz eta inprimaki ofizialean adieraziko dira lehiaketako idazkaritzan, gutxienez jardunaldia hasi baino **ordu erdi** lehenago.

Ordezkariek edo taldeko entrenatzaileak aurkeztu beharko ditu bajak (lehiaketa honetarako kreditatuta egon beharko dute), eta bertan seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea adierazi beharko dira.

Baja aurkeztu gabe aurreikusitako probara etortzen ez den igerilariak **ezingo du jardunaldiko beste probetan parte hartu (errelebozkoetan ere ez) eta ez du ordezkorik izango.**

6- SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

Proba bakoitzean MUTILEN eta NESKEN banakako sailkapenak egingo dira.

7- GARAIKURRAK ETA SARIAK

Domina bana jasoko dute proba eta kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek.

9. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

10- AZKEN OHARRA

Euskadiko Igeriketa Federazioak Lehiaketa Zuzendaria izendatuko du lehiaketa honetarako. Bera izango da agintari gorena bai lehiaketaren antolaketan eta baita lehiaketako Epaille Arbitroaren eskumenari ez dagozkion erreklamazioak konpontzeko ere.

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

1. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
2. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
3. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
4. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
5. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaille bakarria izendatzen dena.
6. Euskadiko Igeriketa Federazioko arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.